BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4905

EBAZPENA, 2012ko urriaren 17koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen 182/2012 prozedura laburtuari dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoan hirugarren interesdunak epatzeko dena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (182/2012 prozedura laburtua) aurkeztu da Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2012ko urtarrilaren 9ko Ebazpenaren kontra jarritako berraztertzeko errekurtsoa administrazio-isiltasunagatik presuntzioz ezestearen aurka. Ebazpen horren bitartez, 2011ko irailaren 20ko (urriaren 10eko EHAA, 193. zk.) Ebazpenaz deitutako Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategoriako karrerako funtzionarioentzat Esku-hartzeko Gaikuntza ikastaroan sartzeko hautaketa prozedurarako onartu eta bazter utzitako pertsonen behin betiko zerrenda onesten da. Eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiak jatorrizko espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin dezaten.

Arkauti, 2012ko urriaren 17a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.